


IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Egurra
Arkaitz!**

Kaixo herrikide!!!

Urtea bero hasi genuen Txalingo txaleta zela eta. Ondoren, beste hainbat kontu ere izan ditugu eta azpimarratzekoa da Igeldoko TET sortzea eta galdeketa egitea onartu duela Donostiako Udalak. Herritarron txanda da orain!

Ospakizun eta egun seinalatuak ere ez ditugu ahaztu behar: Emakumeen Eguna, Korrika, Mus Txapelketa, Palako finalak... San Pedroei begira ere, lanean hasiak dira. Hitzordu horiek eta hilabete hauetan gertatutakoak bildu ditugu.

Bestalde, Arkaitz Etxebeste Lizarazu aizkolariari elkarriketa egiteko aprobetxatu dugu. Onenekin lehian egin du debuta Binakako Txapelketan eta txapela janztea lortu du. Zorionak!

Txalingo txaleta ilegal dela ebatzi du Donostiako epaitegiak

Bi milioi euroko kostua izan dezakeen kalteen erantzulea argitzea falta dela azaldu dute salatzaileek:

«Zergatik ez du erantzuten Udalak?»



Ieltxo, Herri Kontseilua, Haritzalde, abokatuak eta hainbat herritar prentsaurrekoan.

Txalingo txaletaren auzia dela eta, urtarrilaren 23an eman zuen jakitera epaia Donostiako Auzitegiak eta bertan, txaleta ilegal dela adierazten du. Horren aurrean, Herri Kontseiluak, Ieltxok, Haritzalde eta berauen abokatuak prentsaurrekoa eman zuten otsailaren 2an, hainbat herritarrekin batera.

Adierazi zuten Udalak bere jokabidea eta egindakoa justifikatu nahian aritu dela, baina argi eta garbi txalet hori ilegal dela.

Ilegalena abiapuntua bera dela azpimarratu zuten, eta batez ere hori salatu nahi dutela: «Martutenen espropiatutako baserri bat ezin da espekulatiboki Igeldon "berreraiki". Kontua ez da estetika, diseinua, paisaia-inpaktua, estalkiaren forma, ezta ingurunearen mimetizazioa ere, Udalak hori saltzen saiatu den arren. Ez da posible espropiazio bat tarteko, nahi den lekuan eraikitzea eta espekulatze bide ematea. Lurzoruaren Legea ez zen helburu horrekin sortu eta baliokidetasun eta gertutasun irizpideak bete behar dira».

Epaia dioenari helduz, eraitsitako

baserria bera berreraiki behar zela gaineratu zuten: «nekazal tipologiakoa, Lurzoru Legeak eta Donostiako Udal ordenantzek exigitzen duten moduan. Eta hori ez da bete. Argi ikusten dugu denok, eta ez da aditua izan behar, egin dutena luxuzko etxe moderno bat dela pistina eta guzti. Txaleta lege kanpoko da eta ezin da legezatu. Beraz, bota egin behar da hirigintza-legedia jarraituz».

Txeke zuri bat hasieratik

Aipatutakoaz gain, irregulartasun pila daudela jakinarazi zuten eta oso haserre azaldu ziren: «Gertatutakoa oso larria da. Salatuak izan ondoren, araudi aldaketak ere egin dituzte sotoaren eta estalkiaren kasuan». Lotsagarria eta onartezina dela ere gaineratu zuten: «Sustatzaile pribilegiatuak txeke zuri bat izan dute hasieratik, legeari muzin eginez edo nahierara bihurrituz».

Kaltearen kostua noren gain?

Azken gauza garrantzitsu bat ere aipatu zuten: «2022ko azaroan salaketa jarri genuen Udalean txaleta-

ren azken exekuzioa ez datorrelako bat emandako lizentziaren kokapenarekin. Alderdi horrek berebiziko garrantzia du; izan ere, horren arabera erabakiko da promotorea izango den eraikina botatzeaz eta ingurua lehengoratzeko arduratuko dena edo Udalak izango den (Udalak egiaztatu eta lizentziaz kanpo deklaratu dezake). Urtebete pasa da eta salaketa honek ez du erantzunik jaso».

Galderak ere luzatu zituzten: «Nor izango da bi milioi euroko kostua izan dezakeen kalteen erantzulea? Zergatik dago isilik Udalak?».

Eskaerak Udalari

Hiru eskaera egin zituzten Udalari: «Gertatutakoa ikertzea eta argitzea, eta erantzukizun teknikoak eta politikoak ebaztea; 2022an erregistratutako gure salaketari erantzutea; desjabetze-espeditante batek nahi erara berreraikitzea eta espekulazioa eragin ez dezan, beharrezkoak diren arauak idaztea. Hau ezin da errepikatu ez Igeldon, ez inon!».

Udalak, bere aldetik, errekurritu egin du epaia.

Ados al zaude Igeldoko Toki Entitate Txikia sortzearekin?

Apirilaren 14an izango da galdeketa Igeldon. Aurretik, martxoaren 17an, Herri Batzarra egingo da azken pausoak azaltzeko eta zalantzak argitzeko.

Otsailaren 22ko Plenoak onarpena eman zion Igeldoko Toki Entitate Txikia eratzeari eta galdeketa egiteari (denek alde bozkatu zuten PPK izan ezik). Orain galdeketa egingo zaie igeldotarrei. Eguna zehaztua dago: apirilak 14. Eta baita galdera ere: *Ados al zaude Igeldoko Toki Entitate Txikia sortzearekin?* Goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00etara izango da bozkatzeko aukera Itsas

Aurren. Igeldon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarrek izango dute bozkatzeko aukera.

Emaiza ez da loteslea izango, baina bai garrantzitsua. Galdeketaren ondoren, Donostiako Udalak Foru Aldundira bidaliko du espedientea honek ezken erabakia hartu dezan.

Aurretik, Herri Batzarra
Herri Kontseiluak eta TET batzorde-

ak Herri Batzarra egingo dute martxoaren 17an (igandea). Azken pausoak azaldu eta zalantzak argitzeko aukera egongo da. Igeldoko TETaren sorrera eta martxan jartze hori nola aurreikusten den ere azalduko dute: aurrekontua, langileak, gestora (ordezkaritza), eskumenak indarrean jartzea... Goizeko 11:00etan izango da Itsas Aurren. Bertaratzeko dei egiten diete herritarrei.

Hastear dira espaloia egiteko lanak

Donostiako Udalak jakinarazi duenez, lizitatu dituzte dagoeneko espaloia egiteko lanak eta berehala hastekotan dira. Behin hasita, 6 hilabeteko epea izango dute lanak bukatzeko. Aurrekoan adierazi bezala, aurrekontua 1.586.050,21 eurokoa izango da.

Hilerritik Iturrietako geltokira
Espaloiak kaxkoa eta kanpin

ingurua lotuko ditu. Zehazki, hileritik Iturrietako autobus geltokiraino egingo da. Espaloia eskuin aldetik hasiko da, gero Meteorologikoan beste aldera pasako da eta Iturritxo landetxearen aurrean, berriz eskuin aldera. Handik geltokiraino joateko ego- kituko da ingurua, Agiti bidea zeharkatzeko zebrabidea jarritz, besteak beste.

Autobusa zazpietan

Herri Kontseiluak hainbat bilera egin ditu Dbusekin egungo egoera hobetzeko eskatuz. Eskaeren artean Igeldoko lehenengo autobusa aurreratzea zegoen eta proba moduan zerbitzua jarria dago urtarrilaren 18tik. Lehenengo autobusa 7:00etan ateratzen da Igeldotik. Ekainaren 22ra arte izango da probaldia. 10 bidaiariko media eskatu dute mantentzeko.

Bestalde, zerbitzua hobetzeko eta ezarrita duten ordutegia betetzeko eskatuz jarraitzen du Herri Kontseiluak.

Badator Korrika 23!

Harro Herri lelopean, martxoaren 14an hasiko da 23. Korrika Irundik eta Euskal Herria zeharkatu ondoren, martxoaren 24an bukatuko da Baionan. Oraingo edizio honetan ere, kilometroa erosi da Igeldo

herriaren izenean eta herriko hainbat eragileren artean. Kilometro hori martxoaren 23an izango da Antigua/Añorgan arratsaldeko 19:30ak aldera. Herritar guztiei deia luzatzen zaie bertaratu eta

parte hartzeko.

Bestalde, martxoaren 22an hainbat ekintza ere antolatuko dira Igeldon. Zabalduko da informazio zehatza aurrerago. Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!!!

Jai Batzordea martxan da!

Urruti daudela badirudi ere, aurtengo San Pedroak azkar batean ditugu gurean. Hori horrela, Ttonttorro Jai Batzordea martxan da jada!

Jakina den moduan, azken urteetan, Igeldoko Jai Batzordearen lan egiteko modua aldatu da. Aldaketa hau herritar bakoitzari haren nahien eta irriken arabera lan egiteko aukera bermatzeko helburuarekin egin da, baita denon parte hartzea bultzatzeko helburuarekin ere. Lan molde berri hori positiboki baloratua izan zenez pasa den urtean, aurtengo funtzionatzeko eta antolatze modu horri eutsi nahi zaio. Lana banatzeko eta arintzeko xedearekin, beraz, aurtengo ere hiru azpi taldek osatuko dute Jai Batzordea:

- o Diru zaintza lan taldea
- o Administrazio lan taldea
- o Koordinazio lan taldea

HORRETAZ GAIN, HERRITARREN NAHIAK, PROPOSAMENAK ETA IDEIAK ENTZUTEKO HELBURUAREKIN, ALDE BATETIK, MARTXOAREN 1EAN 19:00ETAN BILERA MERIENDA EDER BAT ANTOLATU DA KULTUR ETXEAN.

Elkarretaratze horren helburua jaiak denon artean irudikatzea, proposamen desberdinak jasotzea eta herritarren nahiak eta iritziak biltzea izango da. Bestetik, proposamen gehiago jasotzeko asmoz, martxoaren 1ean hurbildu ezin duenarentzat, Txapelan iradokizunen Kutxa bat egongo da martxoaren 13ra arte. Kutxa botatako iradokizunak arretaz irakurriko dira eta Jai Batzordeak bere esku dagoena egingo du jaien antolaketan ahots desberdinen presentzia islatzeko. Dena den, azpimarratu

nahi da horrek ez duela zertan esan elkarretaratzean zein kutxa proposatzen diren ekintza guztiak aurrera eraman ahal izango dituenik Jai Batzordeak.

Aldi berean, kutxa gehitutako idatziak anonimoak izan badaitezke ere, narbamendu nahi da Jai Batzordearentzat lagungarria dela proposamena bota duenak haren izena ere paperean idaztea harekin kontaktuan jartzeko.

KUTXA ZEIN BILERA IREKIAK IZANGO DIRA. GARRANTZITSUA DA AHOTS DESBERDINAK ENTZUTEA. HORTAZ, HAUR, GAZTE ZEIN HELDU... ERAGIN BURUARI ETA ANIMATU PARTE HARTZERA SAN PEDRO JAIK DENON ARTEAN ANTOLATZEKO!

Ttonttorro Jai Batzordea

Laister aparkaleku txukuna izango du IKOk

Azken urteetan beza-la, Gabonetako boletak atera dira herrian. Oraingo honetan, Igeldoko Kooperatibak hartu du ardura eta bertatik ateratako dirua IKOk aparkalekua txukuntzeko izango da. Denera, 4.300 euro atera direla jakinarazi dute eta eskerrak eman dizkiete parte hartu duten guztiei: «Denon indarrari esker IKOk laister aparkaleku txukuna izango du».

Bestalde, Gabonetako boletoen garrantzia azpimarratu nahi izan dute: «Oraingoan IKOk baliatu du Gabonetako zozketa, baina herriko ekimen bat da eta behar duenak erabiltzeko dago. Eutsi diezaiogun!».



Z
O
R
I
O
N
A
K
!!

Errigorako produktuak eskatzeko aukera

Eutsi gureari leloarekin ekingo dio Errigorak 2024ko udaberriko kanpainari. Oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuak eta ekoizlearen jatorrizko prezioan erosi ahal izango dira.

Eskutik eskura kanpainaren bitartez Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgingtzako eragileak ekonomikoki laguntzeaz gain, aukeran dauden produktuak erosiz, tokiko kontsumoa, Nafarroako ekoizpena, euskal lurraldeen arteko harreman ekonomikoak eta ekologikoaren aldeko apustua sustatzen dira.

Otsailaren 25etik martxoaren 13ra egin daitezke eskaerak, Errigoraren webgunearen bidez (errigora.eus) zein telefonoz (532 093 545 / 848 871 223). Eskatutako produktuen banaketa, berriz, maiatzaren bigarren hamabostaldian egingo da. Egin zure eskaera!

Ondazarteko gazten probaketa egin zen ardoak lagunduta

Hogeita hamar lagun inguru bildu ziren pasa den abenduaren 22an Din-Din elkartearen egin zen gazta eta ardo dastaketan. Dastaketa hau IKO eta Ondazarte baserria partaide izan dituen proiektu baten baitako ekintza gisa antolatu zen.

Ondazarte baserrikoek eta Gipuzkoako beste bi baserriarrek etorkizun laburrean gaztak egiten hasteko asmoa dute eta proiektuaren xedea gazta errezeta ezberdinak bilatu eta jendearen iritziak biltzea izan da. Horretarako Markinako Leartiker Esneki Zentroa izan dute bidelagun. Bertara Ondazarteko esnea eraman eta gazta ezberdinak egin dituzte eta gazta hauek dastatu ahal izan zituzten Din-Dinera hurbildu ziren igeldoarrek.

Gazta mota ezberdinak eskaini zituzten, bakoitza ardo ezberdin batekin lagunduta. Ardoak IKOko hornitzailea den Azkuek prestatu zituen, Akelarreko sommelierak proposatutako uztartze edo maridaje batekin. Gaztak, esan bezala Ondazarteko esnearekin Leartikerren eginak ziren: gazta xamurra, biguna, laktikoa, ondua eta urdina. Gazten inguruko azalpenak Malen Sarasua Leartikerreko gazta adituak eskaini



Malen Sarasua Leartikerreko gazta adituak eman zituen azalpenak.

zituen eta dastaketaren bukaeran asko eskertu zioten Ondazarteko kideek bere laguntza eta jakituria.

Gazta egingo dute Ondazarten Udazken azoka eta abenduko dastaketa hau baliatu dituzte Eneko Dorronsoro eta Eneritz Otamendik jendearen iritziak eta kontsumo ohiturak ezagutzeko eta informazio hori baliagarri izango zaiela diote erabakiak hartzeko. Izan ere, hasieran esan bezala, gazta egiten hasteko urratsa emateko asmotan dira Ondazartekoak. Udal baimena eskuratu dute, beharrezko tresneria-

rentzat laguntzak eskatuak dituzte eta esnetegian moldaketa txiki bat egin eta tresnak iristen zaizkienean hasiko dira berain ekoizpen propioarekin. Ilusio handia dute, urte askoan buruan izan duten ideia bat gauzatzera doazelako eta urrats honek egon nahi duten tokitik hurbilago jarriko dituelakoan daude. Alegia, «behi kopurua gutxitu eta kanpoko lehengaiekiko menpekotasuna gutxituz lurrari lotutako ekoizpen eredu batera iristea». Norabide horretan egiten ari diren bidea neketsua eta geldoa dela diote baina sinetsita daude lortuko dutela.

Mus denboraldia aurrera doa

Igeldoko mus denboraldia urtarilaren 26an hasi zen Euskal Herriko Txapelketako kanporaketarekin, eta ordutik partidak jokatzen ari dira ostiralero Itsas Aurren. Martxoan, gainera, XLV. Lapa Saria jokatuko da. Martxoak 8, 15 eta 23an izango dira Lapako saioak. Azken saioa larunbatez jokatuko da. 22:00etan hasten dira partida guztiak (21:45 inskripzioak) eta bikoteko 20€ ordaindu behar da.

Azken fasean sartu da Pala Txapelketa

Neguko Pala Txapelketa azken fasean sartuta dago otsaila bukaeraz geroztik. Partiduak jokatzen ari dira ostiral arratsaldetan (18:00) eta larunbat goizetan (9:00). Martxoaren 8 eta 9an bigarren mailako eta nesken filanerdiak jokatuko dira eta martxoaren 15ean finalak. Hiru final jokatuko dira 18:00etan hasita: bigarren mailakoa, neskena eta lehenengo mailakoa. Final egunean, parte hartu duten guztientzat afari-merienda egongo da elkartearen. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jokatzen etorri diren bikote guztiei eta partiduak ikustera bertaratu direnei.



Asteazken sei egunetan entrenatzen da Etxebeste eta horietatik hirutan aritzen da aizkoran.

ARKAITZ ETXEBESTE LIZARAZU AIZKOLARIA:

«Urtebetean prestatu eta 10-12 urtez aizkoran dabiltzanekin lehiatzea krixtona izan da!»

Arkaitz Etxebestek (Igeldo, 1994) aizkorako ibilbidea abiatu berri du. Urrezko Binakako Txapelketan debutatu du Iker Vicente bikote duela. Hasiera bikaina izan du eta finala jokatzeko sailkatu da. Azpeitian izango da finala otsailaren 25ean (elkarrizketa lehenago egingo da). Joxe Etxebeste aizkolari ohiaren semea izaki, etxean du ibilbide berri honetako bidelaguna. Nolako egurra, halako ezpala.

Aizkoran lehiatzen hasi zara 29 urterekin. Nolan?

Agian ez da ohikoena, normalean gazteago hasten da jendea, baina badira nire adinean hasitakoak ere, eta horrela suertatu da. Kirol desberdinak egin ditut aurretik: futbola, pala, mendiko bizikleta... Bizikletarekin nazkatu eta beste zerbait egin nahi nuen. Ezin dut ezer egin gabe egon. Aitari esan nion ea zer iruditzen zitzaion aizkoran hastea.

Eta aitak gustora hartuko zuen!

Ez, ez. Ezetz esan zidan. Disziplina asko behar da, asko entrenatu behar da, egurren kostua ere badago... ez zen fidatzen. Hasi eta utzi egingo nuela iruditzen zitzaion. Azkenean, ondo kostata, hilabeteko probaldia egingo genuela adostu genuen. Ikusi zuen serio ari nintzela eta aurrera egin dugu.



Leitzako saioko irudi bat. Bertan debutatu zuen Etxebestek.

Etxean lehendik ere ibilia zinen aizkoran edo zero-tik hasia izan da?

Txikitatik zerbait probatu izan dugu, baina ez serio. Saiok eta txapelketak ikustera ere beti joan izan gara. Hala ere, alde teknikoa falta nuen; korteak nola egin... Alde hori landu dugu bereziki. Aurretik kirola egina naizenez eta beti zaindu izan naizenez, fondoa eta fisikoa oso ondo neuzkan, baina teknika eta indarra falta nituen. Egia esan, espero baino hobeto moldatu naiz hasieratik.

Ondo prestatu arte ez zara plazara atera.

Ia urte eta erdi aritu naiz prestatzen. Ondo ikasi arte, seguru egon arte ez naiz atera. Alde horretatik, bagenuen presio pixka bat ere. Nire aita denagatik, maila ona eman beharra sentitzen genuen biok.

Leitzan debutatu zenuen urtarrilaren 14an Iker Vicenterekin bikotea osatuta. Debutatu, eta irabazi. Nola sentitu zinen?

Ez nintzen batere ondo hasi. Uste nuen lasai nengoela, baina nire aurkezpena egin zutenean krixton zalaparta sortu zen eta oso nerbioa jarri nintzen. Jende pila joan zen ni animatzera, ia 80 pertsona. Sartu zirenean eta pankarta ikusi nuenean, ezin begi-

AZPEITIKO KRONIKA

Hiru plaza eta txapela

Arkaitz Etxebestek, Iker Vicente bikotearekin, Urrezko Binakako Txapelketa irabazi du. Otsailaren 25ean jokatu zuten finala Azpeitian. Txapelketako aurreko bi saioetan egin bezala, finalean ere nagusi izan ziren. Hodei Ezpeleta eta Jokin Urretabizkaia iazko txapeldunei eta Eneko Otaño eta Julen Larreari irabazi zieten. Ezpeleta eta Urretabizkaia aurretik hasi ziren, baina txapeldunek aurrea hartzea lortu zuten azkenean. Lanak bukatzeko 22 minutu eta 49 segundu behar izan zituzten; Ezpeleta eta Urretabizkaia 46 segundu gehiago; eta Otaño eta Larreak 4 minutu eta 2 segundu gehiago. Etxebestek hirugarren plaza zuen eta txapela janzteia lortu du. Oso pozik azaldu zen: «Egurak pasa ahala oso gustora sentitu naiz, Ikerrek konfiantza handia eman dit eta hirugarren plaza izateko, oso oso gustora gelditu naiz».

ratu geratu nintzen. Nerbioa hasi nintzen eta momentu batean larri ibili nintzen. Gero, pixkanaka lasaitzen joan nintzen eta azkenean nahiko lan ona egin nuen. Irabaztea sekulakoa izan zen.

Kanpotik behintzat, ondo aritu zinela sentitu zuen jendeak.

Bai, hala adierazi didate eta asko eskertzen da. Jendea gerturatzen zait nire lana gustatzen zaiela esanaz. Ezpal handia hartzen dudala eta beste... Askotatik du horrek.

“ Alde teknikoa falta nuen; korteak nola egin... Alde hori landu dugu bereziki ”

Vicenterekin aritzeak lagunduko du, baina presioa ere sentituko da, ezta?

Bai, erabat. Maila eman nahia sentitzen nuen hasieratik. Eta horrez gain, jendearen esanak ere entzun behar dira, berarekin lan guztia egina balego bezala. Egia da sekulakoa aizkolaria dela, eta horrek asko laguntzen du, baina bikotek aritzen garenean, biok egin behar ditugu lanak. Bikotean ondo funtzionatu behar da eta halaxe izaten ari da. Berak ere adierazten dit hori.

Binakako Txapelketan ari zarete, nolatan izan duzu aukera Vicenterekin eta onenekin aritzeko?

Egur Sport enpresak antolatzen du. Berak erabakitzen ditu aizkolariak eta maila antzeko bikoteak osatzen saiatzen dira. Nire aitak Ikerri komentatu zion ea nola ikusten zuen nirekin bikotea osatzea. Baiezkoa esan zuen. Orduan, Otsagabiara joan nintzen lehenengo entrenamendua egitera. Ez nintzen gustora geratu. Handik bi astera, etxera etorri zen bera eta hemen askoz hobeto aritu nintzen. Aitak esaten dit egindako debuta harrigarria dela. Urtebetea prestatu eta 10-12 urtez aizkoran dabiltzanekin lehiatzea krixtona izan da!

Aitaren esperientziak lagunduko zuen horretan...

Dudarik gabe. Aitarekin prestatzen ditut entrenamendu guztiak eta bere aholkuei jarraitzen diet. Horrez gain, nire izaera ere bada, zerbait serio hartzen dudanean, oso zorrotza naiz. Ez dut entrenamendu bakar bat ere galdu. Disfrutatu egiten dut entrenatzen.

Eta emaitzak ikusita, jarraitzeko motibazio gehiago! Leitzakoa ondoren, Beasainen finalerdia jokatu zenuten eta hor ere irabazi. Otsailaren 25ean finala jokatu behar duzue Azpeitian. Espero zenuen hala-korik lortzea?

Hau dena opari bat izan da. Esan bezala, debuta bera krixtona izan da eta orain honaino iristea... nire lana ahalik eta ondoena egin, esperientzia bizi eta goza-

tzea da geratzen zaidana.

Eta irabaztea?

Ni beti ateratzen naiz irabaztera, baina jokatzeara bera nahikoa da. Orain artekoa baino lan gehiago egin behar da, egurrak ere tamaina desberdinekoak dira. Nire kezka da ea aguantatuko dudana. Ikerrek esaten dit lasai egoteko, lan ona egingo dugula. Ea zer egiten dugun!

Nola ari dira bizitzen etxean?

Pozik daude, baina ama nerbiosa egoten da. Aukera izan du Leitzara eta Beasainera joateko eta nerbiosa bizitu ditu saioak. Eta etxean, aita eta ni aguantatu behar, orain biok beste gairik ez dugu izaten!

Ze helburu daukazu aurrera begira?

Banaka lehiatzea da orain erronka. Aitak gomendatuta debutatu dut binaka. Plazara ohitzen joateko exhibizioetan aritzea da onena, baina itxaron egin behar genuen eta binakakoan saiatzea ikusi genuen egokiena. Orain, espero dut udaran festaz festa ibili eta erakusketak egitea. Federazioan hastera ere izan daiteke aukera. Hirugarren mailan hasiko nintzateke eta emaitza onak lortuz gero, igotzen joan. Apirila-maiatzan Banakako Txapelketak ere izaten dira Egur Sport enpresak antolatuta, baina zutikako lanak egin behar izaten dira. Modalitate hau arriskutsuena da eta oraindik hobe izango da itxarotea. Ikusiko dugu!



Leitzako saiora animatzera joan ziren igeldoarrak, senideak eta lagunak 'Egurra Arkaitz!' pankarta atzean dutela.

Haurrek badituzte baliabide psikiko egokiak pantailen aurrean aritzeko?

Igeldoko eskolan Alvaro Beñaran Pedagogo eta Psikomotristaren bisita izan genuen. Beñaranek pantailek haurren lehen urteetan (0-6 urte), helduen eta haurren arteko harremanetan duten eragina izan zuen mintzagai.

Alvaro Beñaran pedagogo eta psikomotrista Igeldoko Eskolan izan zen urtarilaren 11n. Pantailek haurrengan duten eraginaz aritu zen.

Beñaranen arabera, gizakien arteko harremanak gure artean sortzen ditugun lotura eta binkuloen bitartez garatzen dira, beraiekin eraikitzen baititugu identifikazioak, gure identitatea eraiki arte. Beraz, haurraren garapenean, bera zaintzen dutenekin harremanen garrantzia argi badago, ze eragin izan leza-ke pantailen erabilerak?

Zer da ume batek mundura etortzen denean behar duena gizakiaren izatea garatzeko? Gizakien arteko harreman afektiboa, gizaki bezala sentiaraziko duena, maitasuna, komunikazioa, haserrea, solasaldia... Beñaranen hitzetan zaintza ez da teknikoa ezta metodo bat ere, harremana baizik.

Umearen eta helduaren arteko harremanak sentsazioetan eta bizitzen diren esperientziatan oinarritzen dira (hauek ekintzak izanik): Keinuak, kontaktuak, hitzak, soinuak, irriparra, ahotsa...

Hau da, umeak bere lehen 5-8 hilabeteetan, bestea "aurkitzen" duenean, lotu egiten ditu bere sentsazioak eta emozioak bizitzen dituen beste horrekin. Beste horrek lasaitu egiten duelako urduri dagoe-nean, bere begiradarekin, bere



besoetan egonda, bere abestiekin...

Beñaranek dioenez, bizitza aurrera doan heinean, atxikimendu eta banaketa bizi behar dute, zaintzen duten helduekin adostasuna eta desadostasunak biziz eta adieraziz, baita alaitasun eta haserreak ere eta lasaitasun eta tentsioak. Denak gizakion harremanak dira eta gizaki bezala garatzen gaituzte.

Baina, lasaitzen nauen beste hori pantaila bat baldin bada? Eta harremana izan nahi dudana pertsona hori pantaila bati begira baldin badago? Eta zer dira heldua eta nire artean presentzia fisikorik gabe agertzen diren ahots horiek? Beraz, ahots horiek al dira nire segurtasuna bermatzen dutenak? Pantaila hori? Horiekin atxikitu edo binkulatu behar al naiz? Edo pantaila da helduaren zati bat?

Errealitatetik kanpo

Haur baten segurtasun sentsazioa sortzen duena helduaren afektua ez baldin bada, haurraren identitatearen garapenean non gelditzen dira heldu hauek? Esan dugun bezala, gizaki izateko, gizakien arteko harremanak ezinbestekoak dira; aldiz, gizaki batek begiratu, ikusi eta sentitu beharrean pantaila batek begiratzeko, laguntzeko eta lasaitzeko banau, gizaki pantaila izango al naiz?

Bere ahotan, haurrarentzat pantailak presentzia esanguratsu bihurtzen badira, beraiekin egingo dute beren identifikazioa, presentzia birtual horiekin identifikatuko direlarik. Pantailak hain goiz agertzen direnean, helduaren presentzia ordezkatzeko dute, fantasiako mundu paraleloan sartuz umea, errealitatetik urruntzen dutelarik.

Zuzendaritza aldaketa ere egin da

Urtea bukatzearekin, Guraso Elkarteko zuzendaritza batzordeko karguak berritzea tokatzen zen eta aldaketa egin dutela jakinarazi dute. Nagore Garin, Nerea Zendoia eta Izaskun Urteaga atera dira eta egungo kideak bost izango dira: Gurutze Obineta, Intza Etxeberría, Lizar Sarasola, Mirari Etxezarreta eta Nora Cenzano.

Jubilatuekin ekintza ugari eta Santa Ageda bezperan kantari

Igeldoko Jubilatuen Elkartek jakinarazi duenez, joan den urtean antolatutako ekintzen egitaraua funtsean mantenduko dute 2024an. Hori horrela, ikastaro hauekin jarraituko dute: pilates eta aulkiko pilates, eta memoria lantzeko tailerra.

Horrez gain: Igeldo eta inguruko bideetan hileroko ibilaldiak, Kantujirako taldearen kantaldiak herrian, Igeldoko Obserbatoriora eta Donostiako museo batzuetara bisitak, egun osoko bi eskurtsio, bat udaberrian eta bestea udazkenean.

Bestalde, Musikoterapia tailerra aurten lehen aldiz antolatu dute eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Ekimen honetan, musikaren bidez, psikomotrizitatea, memoria, mugimenduak eta sentimenduak taldean lantzen ari dira. Hasieratik ikastaro hau oso arrakastatsua izan dela azpimarratu dute

Hainbat hitzaldi

Hitzaldien ekimena ere martxan



jarri dute. Lehenengoa, otsailaren 21ean izan zen. José Manuel Gómez psikologoak honako gaiak landu zituen: nahi gabeko bakardadea, bizitzaren zentzua, gizarte-harremanen beharra, depresioa, dueloa, antsietatea eta abar. Bigarren hitzaldia bertsolaritzaren historiari buruz antolatu nahi dute. Smartphone, mobilaren oinarritzko erabileraren ikastaroa ere egingo dute. Apuntatzeko, Jubilatuen Elkartetik deialdia zabalduko da.

Santa Ageda koplak kantatzen

Aurten ere, jubilatuen Kantujirako taldearen ekimenez, Santa Ageda bezperako koplak abestu dira herriko taberna eta plaza inguruko etxe-bizitzetan. Eusebio Lasarte bertsolari sutua izan zuten lagun ibilbide guztian, eta baita Iker eta Gurutze trikitilariak ere. Igande eguerdian herriko plaza, tabernak eta inguruak girotu zituzten. Ondoren, sagardotegian, lagun arteko bazkari eder batekin pozik bukatu zuten eguna.

"Mundua atzera begira" jarritz ari dira lan eta lan Eskolan

Bigarren hiruhilekoan murgilduta daude Eskolan eta "Mundua atzera begira" proiektua lantzen ari dira. Gela bakoitzean gizarte arloa lantzen ari dira zehazki: HHkoak Igeldoko eraikuntzak, 1 ziklokoak Euskal mitologia, 2. ziklokoak sukaldaritzarekin erlazionatu dute eta 3. ziklokoak nabigatzaileak aztertzen ari dira. Otsailaren hasieran, eskolako lehen bilgunea egin zuten eta bertan erabaki zuten bozka bidez proiektuaren izena.

Lan eta lan dabilta burubelarri,



baina ospakizunetarako tartea ere izan dute: urtarilaren 19an San Sebastian ospatu zuten eta otsailaren

9an Inauteriak. Proiektuarekin erlazionatuz, Euskal kultura eta mitologia izan zen moztortzeko gaia.

Ume, gazte eta helduak elkarrekin gozatuz

Azken Orri Informatibotik hona, Gabonak eta Inauteriak izan ditugu herrian. Irudi ederraskoak utzi dizkigute bi ospakizunek. Bietan, ume, gazte eta helduak elkarrekin gozatuz ikusi ditugu. Jarrai dezagun horrela!



EMAKUMEAREN EGUNA IGELDON

Martxoak 7 osteguna

17:30 Herria apaindu

Martxoak 8 ostirala

17:30 Plazan elkartu, oinez manifestaziora joateko.

18:15 Ezeizan elkartu

18:30 Manifestazioa Antiguako tuneletik.

Martxoak 9 larunbata

18:00 Goxatze tailerra Itsas Aurren

20:00 Poteoa

20:30 Afaria Etxe Nagusin (35€)

Ondoren, bingoa.

Afarirako izen-ematea martxoak 3 arte: Txapelako zerrendan, 656008455 (Karmele) edo 605769567 (Ainhoa)

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak maiatzean eta uztailean izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

